

Bila-ren erabil-eremua

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Egileak erakutsi gura du lan honetan zelan erabil daitekeen *bila* posposiziotzakoa izen propioaren bat duela lagun. Modu bitan erabil daiteke, zelako deklinabide atzizkiak hartzen duen izen propioak. Erabilera batean, izen propioa deklinatzen da jabego genitibo kasuan (-en), eta bertan izen propioa balia daiteke halakotzat (mugagabeen: MitxelenaREN *bila*) ez eze, baita izen komuntzat ere, azken hau deklina daitekeelarik mugatu pluralean (MitxelenEN *bila*) eta mugagabeen (MitxelenaREN *bila*) Beste erabileran, izen propioa deklina daiteke absolutibo kasuan (-Ø), mugagabeen (Mitxelena_*bila*).

The aim of this paper is to show the item *bila* can be used, considering that is a postposition, with a proper noun. When the item *bila* follows a proper noun, the noun can be declined in two different cases: possessive genitive and absolute. Declined as a possessive genitive (-en), it can function as a proper noun, indefinite (MitxelenaREN *bila*), and it can function as a common noun as well, and in this case, it can be declined as definite plural (MitxelenEN *bila*) and as indefinite (MitxelenaREN *bila*). On the other hand, when it is declined in the absolute case (-Ø), the proper noun, as such, appears indefinite (Mitxelena_*bila*).

1. Sartaurrea

Behar honetan aztertu gura dut zelan erabiltzen den *bila*, uste baitut ez dagoela behar beste ikertua. Hona *bila*-ren hiru erabilera desberdin adibide bitartez emanak:

- a. Julen GuerreroREN bila nabil
- b. Julen GuerreroEN bila nabil
- c. Julen Guerrero_ bila nabil

Adibideoi hurrengo estrukturak dagozkie hurrenez hurren:

- A. [Izen propioa + -REN] + [bila]
- B. [Izen propioa + -EN] + [bila]
- C. [Izen propioa + -Ø] + [bila]

Izen propioa esatean berdin esan gura dut izen propio hutsa (Julen) zein deitura soila (Guerrero) zein izen propio-deitura (Julen Guerrero). Gauza bera esan dezaket edozein pertsona entzute handikoz (K. Mitxelena,...).

Bila aztergaiari posposiziotzakoa deituko diot, Euskaltzaindiaren ustez ez dago-eta argi posposizioa den edo ez¹.

Goiko lehenengo estruktura bietan (A eta Bn) NOREN edo jabego genitibo² kasuan (-en) daude deklinaturik; bestean (Cn) NOR edo absolutibo kasuan, mugagabea³.

Goiko jabego genitibodun adibideetan, lehenengo bietan alegia, ez dago mugatu singularraren bidezko adibiderik. Izan ere, horrelako perpausak (*Julen GuerreroAREN bila nabil) lorrintzat daude, txartzat. Beronen zergatia azterketan zehar esplikatuko dut.

Goiko adibide-estrukturetan ageri denez, *bila* ikergaiak hiru egitura desberdin moldatzen ditu izen propioa lagun duela, eta ez, uste denez, bakarra. Hiru erabile-ron untzea edo kakoa dago izen propioak gehienetan halakotzat (izen propio)

1. Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* liburuko 501. orrialdean: «Badira beste zenbait itxuraz posposizio direnak baina beste analisi bat onartzen dutenak: so, beha (egon), bila (joan), (...)».

2. Izen hau ere Euskaltzaindiaren gramatikatik dago harturik, 156. orrialdetik:

6.1. Jabego genitiboa (-en)

6.1.1. Forma

- 1) Mugagabea: -(r)en
- 2) Mugatu sing.: -aren
- 3) Mugatu plur.: -en

3. Izen hau ere Euskaltzaindiaren aipatu gramatikatik dago hartuta, 186. orrialdetik:

8.1. Absolutiboa (-Ø) eta partitiboa (-ik)

8.1.1. Forma

- 1) Mugagabea: -((partitiboa: -(r) ik)
- 2) Mugatu sing.: -a
- 3) Mugatu plur.: -ak

erabiltzen direla, eta gutxienetan kategoriaz aldatzen direla eta izen komun bilakatu, edota, bestela esanda, egoera komunikatibo batzuetan izen komunaren balioa hartzen dute izen propioek. Azterketan barrena azalduko dut noiz-zelan gertatzen den aipaturiko kategoria- edo balio-aldatua.

Orain arte esan dudana frogatzeko, lehenengo eta behin ikertuko dut zertan dagoen *bila*-ren kontua gramatiketan, eta, jarraian, ahaleginak egingo ditut aipatu ditudan hiru estrukturak erabiltzen direla frogatzen.

2. Zertan den *bila*-ren egungo egoera

Badago zer-edo-zertxo idatzia gramatiketan zelan erabili behar den *bila*.

Hona, lehenik, Euskaltzaindiak bere *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*-n adierazia. Bertoko posposizioak arloan ez zaigu *bila*-ren berri ematen posposizioen zerrendan, baina erraten zaigu:

Badira beste zenbait itxuraz posposizio direnak baina beste analisi bat ere onartzen dutenak: so, beha (egon), bila (joan), eske (ibili), jabe (izan), zain (egon), zale (izan), e.a. Hala ere, orain arte ikusitako posposizioak ez bezala, hauek aditz jakin batzuei loturik azaltzen zaizkigu. Agian izen aditzez osaturiko eta aditz balioa duten lokuzio gisa aztertzea zuzenago litzateke. (501 or.)

Euskaltzaindiak berak LEF Batzordearen Lanetan argitara emaniko *Hitz-elkarketa/3* liburuan *bila*-ren aurreko sintagma marka barik badago (ardi-bila), halako egiturei hitz-elkarketa deritze⁴.

Euskaltzaindiak ez digu ez gramatikan, ezta LEF Batzordearen liburuan ere, adibiderik eman gure estruktura aztergaiez osatutakorik, alegia, “[Izen propioa] + [bila]” egiturakorik; bai, ostera, izen propioz barik izen komunez jantzirikoak.

Ez dut besterik kausitu aipatutako gramatikan. Berton, gainera, zalantzan dago *bila*-ren kategoria. Eta ez zaigu-edo esaten zelako jokamoldea duen izen propioekin.

Bertze gramatika bat *Gramatika Bideetan* dugu, berau P. Goenagak idatzia. Berton *bila* aztertzen du beste posposizio batzuekin batera:

d) ONDO, AZPI, GAIN, AURRE, ARTE, ERDI... izenak dira

Hauek, berez, izentzat har daitezke, nahiz eta oso jokabide berezia izan. Lekua adieraten dute gehienbat (...)

(...)

4. Hitz-elkarte sintetikoaren artean dago sailkatua, jardun-elkarte sintetikotzat (56. or.).

Egile eta ekintza-elkarte sintetikoetan egindakoari jarraiki, bigarren osagaiak aditzondo balioa inolako atzizkiren beharrik gabe lortzen duelako eman diegu “jardun-elkarte sintetiko soilak” izena. Bi mota desberdin bildu ditugu hauen artean:

a. A-bila

Ondoan *ibili* aditza eraman ohi duen *bila* duten bigarren osagai mota honetako egiturek, lehen osagaiak, izenak, “zeren” bila adierazten duelarik:

Abaro-bila, anparo-bila, ardi-bila,...

Izen propioekin ere ezin da:

Andoniren aurrean baina ez *Andoni aurrean

Hemen mila arazo agertzen zaizkigu. Froga, honako sintagma gramatikal eta ez-gramatikaletan dugu:

Andoniren aurrean baina *Andoni aurrean
[+gizakia] [gizakia]

Andoniren bila baina *Andoni bila

(...)

Adibide hauek adierazten digutenez, bila eta aurrean-en aurrean Andoni bezalako izen berezi batek jokabide bat duen bitartean, gizon bezalako izen arruntek jokabide berezia dute. Hortaz, izenen tasunak alde batetik eta "posposizio"-aren tasunak bestetik, hartu beharko dira kontutan gauzak ondo egin nahi badira.

(...)

Aipaturiko zati honetan batetik, onetsi egiten da "AndoniREN bila"; eta, bestetik, gaitzetsi "Andoni_ bila"; bestela esanda, onartzen da "[Izen propioa + -REN] + [bila]" estruktura eta zapuztu "[Izen propioa + -Ø] [bila]" egitura. Baina bata zein bestea ondo daude, nire irudiko. Baina beti ere egoera komunikatibo banatan. Batean, Andoni bakarra dago kontestuan, edota Andoni bat baino gehiago egon arren, argi eta garbi dago zein Andoniz ari garen, alegia, identifikatua dago (eta hemen txarto dago "Andoni aurrean"). Beste egoera komunikatiboan Andoni anitz dago eta argiro identifikatu beharra dago Andonietan zein Andoniren gainean dihardugun (eta hemen gaizki dago "AndoniREN Bila"). Hau guztia geroago ahaleginduko naiz azaltzen sits eta bits.

Badira beste gramatika bi oraintsukoak *bila*-ren gaia erabiltzen dutenak: Zubiritarren *Euskal Gramatika Osoa*⁵ eta J. M. Agirrerren *Euskal Gramatika Deskriptiboa*⁶. Biotan posposiziotzat dago *bila* ikergaia eta, ez batean, ez bertzean, ez da jorratzen izen propioen batez jantzirik dagoela.

5. Berton *bila* posposiziotzat jotzen da eta posposizioak zer deklinabide-kasu eskatzen duen, horren araberrako sailkapena egiten da. *Bila* NOREN kasuan eskatzen dutenen artean sartzen dute egileek (240-241 orr.).

14. BILA

Posposizio hau ere NOREN kasuarekin erabiltzen da, mugagabeen izan ezik. Hona hemen eskema bat eta zenbait adibide:

Singularra:	lagunAREN	BILA
Plurala:	lagunEN	BILA
Mugagabea:	lagun_	BILA

(2.1613) ZEREN BILA etorri zara? Diru_ BILA, beti bezala

(2.1614) NOREN BILA joan da? Lagun BATEN BILA joan da

(...)

Ohar zaitez mugagabeen aurreko sintagma kasu-markarik gabe jartzen dela. Adibidez: **ur bila, diru bila, ogi bila, laguntza bila**, eta abar.

6. Hitz pospositiboan artean sartzen du egileak, bilaketa sailean (537 eta 618 orr.).

I.V. HITZ POSPOSITIBOAK

Lan honetan, zentzu laxo batean, izaera morfosintatiko berezia duen hitz edo izen mota aztertzen da, haitz arrunt delarik sintagma adberbialak sortarazten ditu-eta. (...)

Gramatikei eginiko begiratuan ez zaigu ageri *bila*-ren erabilera izen propioen bat lagun duela, *Gramatika Bideetan*-ean izan ezik, eta bertan gaitzetsirik dago [Izen propioa + Ø] + [bila] estruktura.

3. Neure hipotesia

Sartaurrean handi-handika emaniko helburuak zehatzago paratuko ditut hemen. Julen Guerrero izen propioa erabiliko dut bidaia-lagun *bila* aztertzeko. Kasu bi gerta daitezke: lehenik, izen propioa (J. Guerrero) halakotzat (izen propio-tzat) erabiltzea, ohikoa berau; bigarrenik, izen propioa izen komun bilakatzea hain egoera komunikatibotan (aztertuko dudana), bitxiagoa berau. Lehenaren berri emana badago ere gramatikan, azaletik jorratuko dut; eta bigarrenaren arloa al bait sakonen ikertuko dut. Hona zeintzuk xede ditudan kasu batean zein bestean:

A. Izen propioa halakotzat baliaurik

Julen GuerreroREN bila

B. Izen propioa komuntzat baliatuta

B.1. Izen propioak NOREN edo jabego genitibo deklinabide-kasua hartzen duela

B.1.1. Mugatu pluralean

Julen GuerreroEN bila

B.1.2. Mugagabea

Julen GuerreroREN bila

B.2. Izen propioak NOR edo absolutibo deklinabide-kasua hartzen duelarik

Julen Guerrero bila

Koadro honetako B.1. sailean ez dut paratu mugatu singularrezko adibiderik (*Julen GuerreroAREN bila nabil), ez baitago *bila* erabiltzerik izen propioekin eurok NOREN deklinabide-kasuko atzizkia dutela singularrean, geroago emanen ditudan arrazoiengatik.

Goiko eskema hau esplikatzeko, lehenik (1.), erakutsiko dut zelako kondizioetan izen propioak izen propiotzat erabiltzen diren, eta, bide batez, eskemako A

12.2. BILAKETA

Jarrera aktiboagoko itxarokizuna adieraziz, BILA batipat hegoaldean erabiltzen da, izeneko terminua markagabe edo genitibo antolatzen dela.

“Ez ebillen ama alabarentzat maisu bila bakarrik” (Arranegi,89)

“Gaineratu zuen apalki eta aitzaki bila Itsuskok” (Gorrotoa,349)

(...)

Terminu legez partizipioa ere suerta daiteke inoiz, konposatu gisa eransten delarik,

“Neri loa galerazi-bila” (Bihotz-begietan)

(...)

apartadua frogatuko dut; eta, ostean (2.), nolako baldintzetan izen komuntzat baliatzen diren izen propioak, eta, bidenabar, B apartadua argituko dut.

1. Izen propioak egoera komunikatibo bitan erabiltzen dira euren berezko kategorian.

1.1. Kontestu batean izen propio bereko gizabanako bakarra dago, alegia, izen propio unibokoa dugu. Eman dezagun, Julen Guerrero. Honetara, ondo identifikatuta dago izen propioa, hots, badakigu ziur-ziur zein entitate edo gizabanakori egiten dioten erreferentzia, zein pertsonaren gainean ari garen, nahiz eta Euskal Herrian, edo munduan, edozenbat Julen Guerrero izan. Bestela esanda, igorleak kontutan eduki behar du hartzailearen kontestu komunikatiboan aipaturiko entitatea bakarra dela. Aipatzen ari garen egoera honetan, izen propioek mugagabeen eskatzen dute jabego genitibo atzizkia (-en):

Julen GuerreroREN bila nabil

2.2. Beste egoera komunikatiboan izen propio bereko gizabanako bat baino gehiago dago, hots, izen propio multibokoak ditugu, baina argi eta garbi dakigu zein gizabanakoz dihardugun. Esate baterako, euskal kulturaren eremuan Xabier Mendiguren bi daude oso ezagunak: bata, itzultzailea nagusiki; eta bestea, idazlea bereziki. Biak bereiztu gura ditugunean ez gara eten barik esaten arituko “Xabier Mendiguren itzultzailea” eta “Xabier Mendiguren idazlea” edota “Xabier Mendiguren Ezkio-Itsasokoa” eta “Xabier Mendiguren Beasaingoa”, edo bestetara.

Egoera komunikatibo batzuetan hartzaileak identifika dezan Xabier Mendigurenetan zein Xabier Mendigurenez ari den igorlea, honek izen-deiturei adjetiboren bat gaineratu beharko dio: itzultzailea / idazlea edo Ezkio-Itsasokoa / Beasaingoa edo besteren bat. Orduan, adjetiboren bat lagun duela, izen komuntzat deklinatzen da, mugatu singularrean deklinatu ere:

Xabier Mendiguren itzultzaileAREN bila nabil

Jakina, “itzultzailea” dagoen tokian badago baliatzerik “Ezkio-Itsasokoa” edo beste modifikatzailearen bat.

Beste situazio komunikatibo batzuetan ere erabil dezakegu “Xabier Mendiguren” soila, eta argi eta garbi ulertu “itzultzailearen” gainean ekiten diogula. Egin dezagun, konparazio baterako, itzulpengintzaz ari garela eta itzultzaile aparta bat eskatzen didala euskal mezenas batek hain eta halako itzulpenak egiteko. Egoera honetan, nasai-nasai erabil dezaket hurrengo esaldia:

Xabier MendigurenEN bila nabil

Eta denok entelegatzen dugu “itzultzailearen” gainean dihardudala, eta ez idazleaz edo bestez.

Beste hainbat kontestutan ere, hartzaileak badaki argi eta garbi zein Xabier Mendigurenez ari garen. Esaterako, itzultzaileek euren arloaz dihardutenean nahikoa izango dute Xabier Mendiguren adieraztea edota baita izen hutsa ere (Xabier).

Labur bilduta, honelako egoera komunikatiboetan, hau da, izen propioak zehatz identifikatuta daudenetan, zeinez ari garen argi eta garbi dagoenetan, ez dago, nik uste, arazorik eta izen propioak halakotzat deklinatzen ditugu jabego genitibo kasuan (-en), mugagabeen: “Julen GuerreroREN bila” eta ez “*Julen Guerrero_ bila”

2. Bigarren arloari dagokionez, hots, izen propioak izen komuntzat erabiltzen diren kasuei, aztertu behar da zelako kondizioetan jazotzen den kategoria aldaketa hau, apartadu honen hasieran adierazitako eskema betetzeko. Kasu desberdin bi daude:

2.1. Kontestu extralinguistikoan izen propio bereko gizabanako bat baino gehiago dago.

Egin dezagun irakaslea naizela eta nire ikasgelan Guerrero abizeneko hamar ikasle ditudala, besteak beste. Irati oihana ezagutu guran txango bat antolatu dugu. Bertan arrazoi bat edo besterengatik aldendu edo galdu egin dira hamar Guerreroak. Egoera komunikatibo honetan, Guerrero bat baino gehiagoko honetan, izen propioak izen komun bihurtzen dira⁷, eta, horrenbestez, Guerrero izena erabil daiteke beste edozein izen komun en legez, esaterako, mugatu pluralean:

(Hamar) GuerreroEN bila nabil

Zeren-eta kontestu honetako Guerreroak (denak) ondo baitaude identifikatuak (badakigu zeintzuk Guerrero diren).

Mugagabeen ere balia daiteke Guerrero. Jo dezagun, txango berean hamar Guerreroak barik zenbait edo lau aldendu direla oihanean. Egoera honetan ere kategoriaz aldatzen da izen propioa eta izen komun bilakatu⁸. Hortaz, egokia da hurrengo esaldia, mugagabeen emana:

Zenbait / lau GuerreroREN bila nabil

7. Euskaltzaindiak ematen digu zelako ezaugarriak bereizten dituzten izen propioak (berezi) eta izen komunak, bere gramatikako 41. orrialdean:

izena:	bereziak	
arruntak:	zenbakarriak	
	zenbakaitzak:	neurgarriak
		neurgaitzak

Euskaltzaindiaren eskemaren arabera izen komun batzuk zenbatu egiten dira, eta beste batzuk *neurtu* (eta badira, jakina, zenbatu eta neurtu, biak egiten dituztenak ere); izen propioak, ostera, ez zenbatu, ez neurtu. Izen moton ezaugarriak kontutan hartuta, erran dezakegu egoera komunikatibo batean, izen propio bereko gizabanako askokoa, izen propio bat zenbatzen (edo neurtzen) dugunean edota eransten diogunean zenbatzaile edo determinatzaile zehaztugaberen bat, orduantxe baliatzen dela izen komuntzat:

GuerreroAREN bila nabil	(Izen propioa)
HAMAR GuerreroEN bila nabil	(Izen komun bihurtua)
ZENBAIT / LAU GuerreroREN bila nabil	(Izen komun bihurtua)

8. Ikus aitzineko oharra.

Baina kontestu honetan Guerrero ez dago ezertara erabiltzerik mugatu singularrean: “*Julen GuerreroAREN bila nabil”. Izan ere, Julen Guerrero singularrean deklinatzeko bakarra egon behar da egoera komunikatiboan. Eta hori gertatuz gero, izen komunak legez barik izen propioak bezala (mugagabeen) deklinatu behar da: “Julen GuerreroREN bila nabil”. Bestalde, Euskaltzaindiaren esanetan galarazita dago izen propioei artikulua definitu singularra gaineratzea⁹.

2.2. Hizkuntzaz kanpoko kontestuan izen propio bereko entitate bat bera ere ez dago.

Egoera komunikatibo honetan gizabanako batzuk daude gaineratzen dizkiegunak izen propiodun gizabanako jakin baten ezaugarriak.

Egin kontu Athletic-aren futbolari-bilatzaila naizela eta futbol-zelairik futbol-zelai nabilela futbolari gazteen bila etorkizunean Athletic-en jokatzeko. Egoera komunikatibo honetan edonork adituko luke erraz-erraz ondoko perpausa:

(Julen) Guerrero_ bila nabil

Hau da, “(Julen) Guerrero jokalariaen futbol-ezaugarriak dituzten futbolarien bila nabil” adierazi gura da esaldi horretan. Kontestu honetan izen propiotzat barik izen komuntzat darabilgu Guerrero terminoa, NOR deklinabide-kasuan, mugagabeen.

Pentsa dezaket hamar (edo zenbatgura) futbolari kausitu ditudala Guerrero-ren ezaugarrietakoak, eta euron bila noala futboleant egiteko. Kontestu honetan badaukat baliatzerik izen propioa NOREN kasuan, mugatu pluralean eta mugagabeen:

GuerreroEN bila noa	(Mugatu plurala)
Zenbait / lau GuerreroREN bila noa	(Mugagabeen)

Lehenengo perpausuan egoera komunikatiboko Guerrero guztiak aipatzen ditut; bigarreanean, zenbait edo lau.

Eta kontestu honetan ere ezin daiteke deklina mugatu singularrean “*Julen GuerreroAREN bila noa”, 2.1. puntuari emaniko arrazoi berberengatik.

9. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*-ren 37. eta 38. orrialdeetan dio:

Izen arrunten eta berezien artean bereizteko orduan bi irizpide desberdin erabiltzen ditugu, nahiz eta, zenbait kasutan, irizpide hauek elkarren artean nahasten diren, ez baitatuz beti bat:

- irizpide formala
- irizpide semantikoa

Irizpide formalarekin “formari”, izenaren itxurari bakarrik egiten diogu kasu. Horrela, izen arruntek normalean determinatzailea hartzen dutela ikusten dugu eta izen bereziak, berriz, ez:

- (18) *etxe erosi dut
- (19) etxea erosi dut
- (20) *Parisa polita da
- (21) Paris polita da
- (...)

“*Parisa polita da” debekaturik badago era berean “*(Julen) GuerreroA”, eta, horrenbestez, “*(Julen) GuerreroAREN bila nabil”.

4. Konklusioa

Oker ez banago erakutsi uste dut *bila* posposiziotzakoa erabiliz gero izen propioren bat lagun duela, ondoko erabilerak dituela:

A. Izen propioak halakotzat erabilita (mugagabeen deklinaturik)

[Izen propioa + -EN] + [bila]: GuerreroREN bila

B. Izen propioak izen komuntzat erabilirik

B.1. NOREN edo jabego genitibo kasuan deklinatuta

B.1.1. Mugagabeen

[Izen propioa + -REN] + [bila]: GuerreroREN bila

B.1.2. Mugatu pluralean

[Izen propioa + -EN] + [bila]: GuerreroEN bila

B.2. NOR edo absolutibo kasuan deklinatuta (mugagabeen deklinaturik)

[Izen propioa + -(Ø)] + [bila]: Guerrero bila

Ondo kargutzen bagara, eskema honetan bi bider errepikatzen da estruktura-adibide bera: “[Izen propioa + -REN] + [bila]: GuerreroREN bila”, baina egoera komunikatibo banatan: batean, izen propioa halakotzat deklinatzen da, eta, bertzean, izen propioa izen komun bilakatzen da.

Hipotesia frogatzeko, ahozko eta idatzizko adibiderik paratu ez badut ere, nik uste, adibide sinesgarriak eman ditut beren-beregi asmatuak.

Badirudi zeinahi izen propiorekin erabil daitezkeela estrokturok, nahiz eta sarrien-sarrien entzute handikoekin egin praxian (M. Indurain, K. Mitxelena, Ronaldo, Sokrates, Madonna,...).

Bibliografia

- Agirre, J. M., (1991): *Euskal gramatika deskriptiboa*, Bilbo.
Euskaltzaindia, (1991): *Hitz-elkarketa 3*, Bilbo.
———, (1993): *Euskal gramatika laburra: perpau bakuna*, Bilbo.
Goenaga, P., (1985): *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.
Zubiri, I., (1995): *Euskal gramatika osoa*, Bilbo.